



Foto del autor.

# Mendia, besterik ez

JOXERRA

*Bizkarra motxiladuna,  
lainoa zulatzen;  
mendiaren intimitatea hautsi gabe,  
mendiarekin bat bakarrik izanez;  
gero eta altuago,  
gero eta bakartiago;  
mendi-lepoak gainditzen,  
lainoak eta mailoak oinpetzen.  
Euri-elurra aurpegira dihoakizun,  
sudurretik irristatzen,*

*kokotxaraino tantaka heltzen;  
gorputza izerditan, eta  
aurpegia izotzetan.  
Bertako lasaitasunez blaitua  
buelatzeko garaia heltzen zaizu;  
zeru hortik jaitsi behar, bai;  
munduko edertasuna eta haunditasuna  
ikusi ondoren,  
zibilizazio zatar honetara itzulia.  
Agur, mendiok!!*